



## 15653. PSIKOLOGIARI APLIKATURIKO DISEINUAK

---

**Irakasleak:** *Izaskun Ibabe* (31 Taldea, euskaraz)  
*Ana Isabel Vergara* (01:02 Taldea, gazteleraz)

**Kodea: 15653**

**Hautazko irakasgaia**

**Zehaztugabeko maila**

**Lehenengo lauhilekoa**

**Kredituak guztira: 6. Kreditu eorikoak: 4, Kreditu praktikoak: 2**

---

### HELBURU OROKORRAK

---

Irakasgai honekin nahi da ikasleak eskuratu dezan, diseinu ia-esperimentalen ezagutza osoa eta dagozkien estrategia estatistiko egokienak diseinu horietatik lortutako emaitzen interpretazioa egiteko. Irakasgai hau hezkuntza eskuhartze edo gizarte psikologia eskuhartzean, beste eremu batzuen artean, interesatuta dauden ikasleei zuzenduta dago.

Helburu orokor hauei lotuta, irakasgaiaren bidez lortzea nahi da, ikasleak ezagutza zehatzak (taxonomia eta diseinu aplikatuen ezaugarriak, oinarrizko diseinuak ikasi, datuen azterketa, eskuhartze proiektuen lanketa), gaitasunak (pentsamendu kritikoaren erabilpena, analisi estatistikorako softwarearen erabilpena, komunikazio idatzia eta ahozkoaren gaitasunaren erakuspena, kontzeptu matematikoak aplikatzeko trebetasuna, talde-laneko gaitasuna, eta ikerketa-proiektuen lanketa eta defentsa publikoa eskuhartze psikologiko eremuan) eta balio etikoak (APAren kode etikoaren ezagutza eta erabilpena, portaera etikoaren aurkezpena, eszeptizismoa eta jakingura intelektuala, plagioak eta emaitza estatistikoen distortsioa saihestea) eskura ditzan nahi da.

### GAITEGIA

---

1. Sarrera. Psikologiari aplikaturiko ikerketa diseinuen oinarrizko kontzeptuak eta sailkapena.
2. Zeharkako diseinuak.
3. Aldagaiaren asignazio ezezaguna duten diseinuen azterketa estatistikoa egiteko teknikak.
4. Aldagaiaren asignazio ezaguna duten diseinuen azterketa estatistikoa egiteko teknikak.
5. Beste diseinu batzuk: Luzerako diseinuak, N=1, hautakorrak edo inkesta diseinuak.

### BIBLIOGRAFIA

---

- Anguera, M.T., Arnau, J., Ato, M., Martínez, R., Pascual, J. eta Vallejo, G. (1995). Métodos de investigación en psicología. Madrid: Síntesis.
- Arnau, J. (2001) (Coord.). Diseños de series temporales: técnicas de análisis. Barcelona: Edicions Universitat de Barcelona.
- Balluerka, N. (1999). Planificación de la investigación. La validez del diseño. Salamanca: Ediciones Amarú.
- Campbell, D. eta Stanley, J. (1966). Diseños experimentales y cuasiexperimentales en la investigación social. Buenos Aires: Amorrortu, 1982.
- Cohen, J., Cohen, P., West, S.G. eta Aiken, L.S. (2003). Applied Multiple Regression/ Correlation Analysis for the Behavioral Sciences (3<sup>rd</sup> ed.). Mahwah, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates.



- Cook, T.D. eta Campbell, D. (1979). Quasi-experimentation. Design and Analysis issues for field setting. Chicago, IL: Rand McNally.
- Dendaluce, I. (Coor.) (1988). Aspectos metodológicos de la investigación educativa. Madrid: Narcea.
- Judd, C. eta Kenny, D. (1981). Estimating the effects of social interventions. Cambridge: Cambridge University Press.
- Shadish, W.R., Cook, T.D. eta Campbell, D.T. (2002). Experimental and quasi-experimental designs for generalized causal inference. Boston: Houghton-Mifflin.
- Trochim, W.M.K. (Ed.) (1986). Advances in quasi-experimental design and analysis: New directions for program evaluation. San Francisco, CA: Jossey-Bass.

## EBALUAKETA

---

Irakasgaiari buruzko ezagutzak eta konpetentziak ebaluatzeko ikerketa proiektu bat, psikologia aplikatuaren eremuan, burutzea, aurkeztea eta defentsa publikoa egitea eskatuko da. Lan hau talde txikietan egingo da. Ikasleak erakutsi beharko du ikerketa bat planifikatzeko gaitasuna psikologia aplikatua eremuan, diseinuaren planteamendua, ikerketaren baliotasuna eta datuen azterketa estatistikoari buruzko arazoak konponduaz. Modu berean aurkeztu beharko du, taldean lana eta ikerketa-proiektu baten defentsa publikoa egiteko bere gaitasuna.